

WIKIPEDIA EDITATU

Interneteko
entziklopediako
edukia
hobetzeko
gida

“Wikilaria izan naiz 2004tik. Bertan aritzen naiz gustura nabilelako mundu osorako erreferentziazko lan fidagarri bat sortzen. Pozik lagunduko dizut bertan aritzen ikasten; era horretan, zure ezagutza bertara gehitu eta Wikipedia hobea egingo duzu.”



EUSKAL

WIKILARIEN

KULTURA ELKARTEA



Imajina ezazu mundu bat non gizaki guztiek askatasunez zabal dezaketen ezagutza guztia. Hori da gure eginkizuna.

Hori da Wikipediarako eta beste Wikimedia proiektuetarako gure ikuspena; hain zuzen, munduko boluntarioak 2001etik aritu dira horiek eraikitzen. Giza ezagutza osoa biltzeko, jende askoren ezagutza behar da, baita zurea ere!

Zer ikas dezakezun

Gida honek Wikipedian laguntzeko moduak erakutsiko dizkizu, era horretan zure ezagutza besteekin askatasunez partekatzeko. Deskubrituko duzu:

- Wikipedia zer den eta nola funtzionatzen duen
- Wikipedian barrena nola nabigatu
- Wikipedian nola lagun dezakezun eta hori zergatik egin beharko zenukeen
- Wikipedia fidagarria izaten laguntzen duten politika garrantzitsuak
- Ikusizko Editorearen bitartez nola editatu eta wikimarkak nola erabili
- Edukia gehitzeko pausoz pausoko gida
- Beste lankide batzuekin elkar aritzeko arrazoizko jokabidea

Lasterbideak

Euskal Wikipediari buruzko estatistikak eguneratuta ikusi nahi? Tekleatu WP:Estat bilaketa barran hemen irudikatzen den bezala.

WP:STATS

WP:Estat testuari lasterbide deitzen zaio Wikipedian. Hau bezalako lasterbideak teklea ditzakezu bilaketa barran orri jakin batzuk ateratzeko.

Liburuxka honetan, lasterbideak honela adierazten ditugu: | lasterbidea [WP:Estat](#).

Zer da Wikipedia?

Wikipedia —edonork edita dezakeen entziklopedia askea— historia lankidetzan egindako proiektu handienetako bat da. Wikipediak milioika artikulua eta ehunka hizkuntza ditu, eta ehunka milioi pertsonak irakurtzen dute maiztasunez.

Wikipedian eduki asko dago dagoeneko, baina gai garrantzitsu asko gutxi landu dira edota ez dute batere artikulurik. Wikipedia zu bezalako lankideetan oinarritzen da zure hizkuntzako Wikipedian informazioa eguneratuta eduki, zirriborro artikulua laburrak luzatu, eta landu gabeko gaiak buruzko artikulua sortzeko. Wikipediari egiten dizkiozun ekarpenak ehunka, milaka, baita milioika pertsonen argigarri izan daitezke mundu osoan.

Wikipedian aldaketa bat egiten duzunean, ehun milaka pertsonaren komunitate batekin bat egiten ari zara (wikilariak), eta beren ezagutza Wikipedian jarri dute. Wikilariak egiten dutena mundua eraldatzeko ahalmena du, baina artean bide luzea dugu egiteko ezagutza osoa biltzen dugun arte. Horregatik behar dugu zure laguntza.

Wikipediara gehitzen duzuna eduki askea da eta guztiona bihurtzen da. Beste edonork edita eta berrerabil dezake lizentzia askearen bitartez.

Wikipediara gehitzen duzuna eduki askea da eta guztiona bihurtzen da. Beste edonork edita eta berrerabil dezake lizentzia askearen bitartez.




Zergatik editatu Wikipedian?



Egun, segida ematen ari natzaio gure aitona herriko historia eta ondarea biltzen egindako lanari eta zaletasunari. Aldea da nik badudala aitona ez zuen lanabes bat: Wikipedia.



Irekiagoa den mundua nahi dugu, heziagoa, eta askeagoa. Ezagutza hura bilatzen duen edonoren eskuetan dagoen mundua nahi dugu.



Idazten duzuna zuzena eta ondo idatzia bada, aukerak daude egunero jendeak gehiago irakurtzeko (bestela, zokoratuta geratuko da, eta aldatu egingo dute).

Wikipedia orrietan nabigatu

Hasteko, lagungarria izango zaizu interfazea pixka bat ezagutzea eta Wikipedia orrieta

Komunitatearen ataria

Komunitatearen atariak Wikipedian barrena zer gertatzen ari den esploratzeko modua ematen dizu, hasi berrietatik eta ekarpen edo politikari buruzko eztabaidetaraino.

Eduki nabarmenduak

Hemen Wikipediako lan onenak aurki ditzakezu: artikulua nabarmenduak, argazki onenak eta wiki komunitatean maila onena emandako beste eduki batzuk.

Laguntza

Laguntza orriak, artikulua bezalaxe, Wikipediako lankideek idazten dituzte.

Tresnak

Atal honek trena erabilgarriak ditu orri bati eta bere historiari buruz informazio gehiago lortzeko.

Hizkuntzak

Badira Wikipediako beste hizkuntza bertsio batzuk —280 baino gehiago— gai berari buruzko artikulua dutenak.

Hizkuntza ezarpenak

Ezarpen hauek modua ematen dizute menuen hizkuntza aldatzeko eta zure teklaturako formatua aukeratzeko.



WIKIPEDIA
Entziklopedia askea

[Azala](#)
[Komunitatea](#)
[Albisteak](#)
[Aldaketa berriak](#)
[Ausazko orria](#)
[Laguntza](#)
[Dohaintza egin](#)

[Inprimatu/esportatu](#)
[Liburu bat sortu](#)
[PDF gisa jaitsi](#)
[Inprimatzeko bertsioa](#)

[Beste proiektuetan](#)



[Tresnak](#)

[Honazko lotura duten orriak](#)
[Lotutako orrietako aldaketak](#)
[Fitxategia igo](#)
[Orri bereziak](#)
[Lotura iraunkorra](#)
[Orri honen datuak](#)
[Wikidata itema](#)
[Artikulu hau aipatu](#)

[Beste hizkuntzak](#)

[Asturianu](#)
[Català](#)
[Deutsch](#)
[English](#)
[Español](#)
[Français](#)
[Galego](#)
[Հայերեն](#)

Artikuluak

Eztabaida

Irakurri

Entziklopedia

Entziklopedia giza jakintzaren bilduma bat da. Hitza grekotik dator (hitzez hitzeko itzulpena "guztia zirkulu batean" da)

Eduki-taula [ezkutatu]

- 1 Testu entziklopediko baten ezaugarriak
- 2 Entziklopedia baten edukiak
- 3 Historia
 - 3.1 Lehen entziklopedia modernoak
 - 3.2 Encyclopédie
 - 3.3 Britannica
- 4 Ikus, gainera
- 5 Erreferentziak
- 6 Kanpo loturak

Testu entziklopediko baten ezaugarriak

Entziklopediako artikuluek beste formatu literarioetatik bereizten dira:

- Oso sintetikoak dira, informazio laburtua eskaintzen dute.
- Informazioa eskuratu ahal izateari ematen zaio bereizgarritasuna.
- Objektibotasuna dute helburu, subjektibotasuna edo iruditasuna ez dute.
- Bertako irudiak eraginkortasunaren arabera erabakitzen dira.
- Egile asko izaten dira.

Entziklopedia baten edukiak [aldatu | aldatu iturburu kodea]

Entziklopedia bateko edukiek, gaia edozein dela ere, bereizgarriak izan behar dira:

- Interes unibertsalekoak dira: edonori interesa dakiokionak dira, ez pertsonala.
- Informazioak ez du interesa galtzen denbora aurreratuarekin.
- Informazio orokorretik hasi eta zehatzeraino iritsiz sailkatu behar dira.

Historia [aldatu | aldatu iturburu kodea]

Eztabaida orria

Artikulu bakoitzak bere *Eztabaida* orria du eta, bertan, lankideek komentarioak eta proposamenak egin ditzakete, aldaketez eztabaidatu, eta elkarri laguntza eskatu.

Aldatu

Irakurle askok inoiz ez diete erreparatzen Aldatu eta Aldatu iturburu kodea botoiei, baina Wikipediako artikuluetako zati garrantzitsuen dira. Klikatu goiko eskuinaldean Aldatu edo Aldatu iturburu kodea botoian artikuluko osoa editatzeko, edo klikatu testu barruko esteketan (loturetan) atal jakin bat editatzeko.

Ikusi historia

Wikipediako artikuluko baten historian hura sortu zenetik egin dako ekarpen guztiak biltzen dira. Nork zer eta noiz aldatu zuen ikus dezakezu, eta bi bertsio elkarren ondoz ondo konpara ditzakezu.

Kontua sortu

Artean egin ez baduzu, sortu zure kontua. Kontu bat edukiz, zure ekarpenen jarraipena egin dezakezu, zure Erabiltzaile orria sortu, eta jakinarazpenak jaso, besteek zuri erantzun edo zuk egindakoa gehiago lantzen dutenean.

Bilatu

Aurkitu artikulua izenen arabera, edo aurkitu bilatzen dituzun hitzak dituzten orriak. Gainera batzuetan lasterbideak erabil ditzakezu (adibidez, "WP:Politikak") gida liburuxka honetan aipatutako orri batzuk bisitaratzeko. | [WP:Politikak](#) lasterbide baliagarri egingo zaizu.

Saioa hasi gabe [Eztabaida](#) [Ekarpenak](#) [Sortu kontua](#) [Hasi saioa](#)

[Aldatu](#) [Aldatu iturburu kodea](#) [Ikusi historia](#)

ezierazko enkyklios paideia terminotik; esanahia, aldiz "hezkuntza orokorra").



Ohiko entziklopedia bat.

[ak](#) [[aldatu](#) | [aldatu iturburu kodea](#)]

ereizten dituzten ezaugarriak dauzkate:

saiatzen da.

biziko garrantzia.

iritziak alde batera utziz.

izen dira, eta ez estetikaren arabera.

[datu iturburu kodea](#)]

aldintza batzuk betetzen dituzte:

keen informazioa dauka, eta pertsona konkretu bati interesa dakioken informazio

a doan heinean.

ailkatzen da.

Wikilariek zer egiten duten

Boluntarioek modu batean baino gehiagotan laguntzen dute. Hemen duzu Wikipedia moldatzeko behar diren gauzen adibide batzuk.

Testu berria eta erreferentziak gehitu



Hasiberriei ongi etorria eman eta haien galderei erantzun



Artikulu berriak eta aldaketa berrienak ikuskatu



WIKIPEDIA
Entziklopedia askea

- Azala
- Komunitatea
- Albisteak
- Aldaketa berriak
- Ausazko orria
- Laguntza
- Dohaintza egin

Inprimatu/esportatu

- Liburu bat sortu
- PDF gisa jaitsi
- Inprimatzeko bertsioa

Beste proiektuetan

- Wikimedia Commons
- Wikispezieak
- Wikiliburuak
- Wikidata
- Wiktionary

Tresnak

Honanzko lotura duten orriak

Atari **Eztabaida**

Atari:Komunitate

Osteguna

25

urtarrila
2018

Ongi etorri komunitatean irakurri dezakezu.

albisteak ikus

Azken albisteak

Lankideentzako oharrak

- Proposa itzazu nabarmentzeko
- Proposa itzazu Euskal Herriko
- Artikulu bat sortu:




Wikipediako politikak eztabaidatu eta gatazkak konpontzen lagundu



Wikipedia funtzionarazten duen iturri ireki, askeko softwarea garatu

Argazkiak igo eta artikuluei irudiak gehitu



Artikuluei zuzenketak egin



Saioa hasi gabe Eztabaida Ekarpenak Sortu kontua Hasi saioa

Irakurri

Kodea ikusi

Ikusi historia

Wikipedia wikian bilatu



ea

Komunitatearen ataria

omunitatearen atarira. Leku honetan Wikipedian pil-pilean dauden gaiei buruz Egiteko dauden gauzak ikus ditzazkezu, proiekturen batera gehitu eta azken irakur ditzazkezu. Une honetan, **287.963 artikulurekin** ari gara lanean. Aldaketak ikus ditzazkezu **aldaketa berrietan** edo **artikulu berrietan**.



ak

a merezi duten artikulua
ri buruzko irudi nabarmenak

Artikulua sortu

Txantilo: Lankideontzako oharrak



Wikipedia editatzeko ikasleak esleitu edo, Wikipediako Hezkuntza Programaren bidez, ikasle editoreei oinarrizko gauzak ikasten lagundu



Artikuluak berrikusi eta hobekuntzarako proposamenak egin

Zergatik editatu Wikipedian?



Umeak ekartzean, Nepaleko kultura eta historia aberatsa ezagut dezaten nahi dut, eta hori haien hizkuntzan ikas dezaten nahi dut. Bada, Wikipedia hori gertatzeko modua ematen ari da.



Wikipedian bilatu nuenean, ez zegoen ezer; beraz artikulua neuk idaztea erabaki nuen. Gaurdaino, 18.000 pertsonak eta gehiagok irakurri dute nire artikulua; are, batzuek beren informazioa eta iturriak gehitu dituzte.



Nik bandalismoaren kontrako borrokan ikasi nuen ingelesez.

Editatzeko prestatu

Edonork edita dezake Wikipedian, baina badira oinarrizko arau batzuk. Hemen dituzu editatzen hasten zarenean betetzeko garrantzitsuenak diren batzuk:

Ikuspegi neutrala

Dena Wikipedian ikuspegi neutral batetik idatzi behar da. Artikuluek ez dute zertan inoren aldeko jarre-
ra hartu; aldiz, zuzen eta aldekotasunik gabe azaldu behar dituzte iturri fidagarrietan gaiari buruz argita-
ratutako ikuspuntu adierazgarri guztiak. Puntu baten aldeko arrazoibideak edo ideia batzuen defentsak ez dute tokirik Wikipediako artikuluetan.

Norberaren ikerketarik ez

Labur esateko, Wikipedia ez da norberaren ideiak argitaratzeko toki bat. Horren ordez, iturri fidagarrietan beste batzuek argitaratutakoa laburbildu beharko zenuke gaiari buruz. Artikuluek ez dute azterketa berri-
rik eduki behar, eta ez dute argitaratutako materia-
len arteko konbinaziorik egin behar ondorio zabalagoak ateratzeko, bakarrik iturri bakoitzak dioena.

Egile eskubideak eta plagioa

Ekarpen guztiek lizentzia askea dutenez, editore bat ere ez da artikuluren jabe; zure ekarpen guztiak aldatu eta berrantolatu egin daitezke. Aipu laburrak izan ezik, ez da zilegi egile eskubideak dituzten iturrien edukia Wikipediara kopiatzea. Zuzenean kopiatzea edo parafra-
si estua plagioa eta egile eskubideen urraketa dira, hondagarriak, eta boluntarioen denbora ere xahutzen du, garbiketa lana egin behar baitute. Garrantzizkoa da Wikipediara gehitzen duzun eduki guztia zure hitzetan idatzia izatea (jabari publikoko eta lizentzia askeko edukia ere Wikipedian jar daiteke, betiere behar bezala aitortuta bada-
go).

Iturri fidagarriak

Wikipediako informazioa egiaztagarria izan behar da, argitaratutako iturri fidagarrietan oinarritua. Entziklopediara gehitzen duzun informaziorako, aipamenak gehitu behar dituzu, besteek beren kabuz egiaztatu ahal izan dezaten. Wikipediako iturri fidagarrienak dira datuak kontrastatzeko fama duten hirugarrenen iturriak, adibidez, unibertsitateko argitaletxeek argitaratutako liburuak, kidekoek berrikusitako aldizkari akademikoak eta bertako zein kanpoko egunkariak. Mesedez erabili ikuspuntu ezagunak adierazten dituzten iturriak, eta ez azterketa bakanak edo bazterreko ikerlanak. Saiatu gaiari buruz eskueran dauden iturri fidagarrienak aurkitzen.

Interes gatazka

Gai jakin bati buruzko interes gatazka baduzu (adibidez, horko nagusi bat edo erakunde bateko kidea zarelako), ez zenuke editatu behar hari buruzko artikuluetan.

Guk urteen joanean garatu ditugu politika eta printzipio hauek, Wikipedia ahal bezain fidagarri eta baliagarriena izan dadin.



Zer da estilo entziklopedikoa?

Estilo entziklopedikoan eta tonu formalean idaztea garrantzizkoa da Wikipediara eduki berria gehitzean. Saiakera, arrazoibidea edo iritzi idazketa beharrean, Wikipediako artikulua argiak izan behar dira, datuak bakarrik emanez. Hona hemen estilo entziklopedikoaren gida.

Desegokia

Britannica eta entziklopedien etorkizuna

Encyclopædia Britannica edo Britaniar Entziklopedia, entziklopedia aitortua eta historikoki esanguratsua izan ~~arren, toki gutxi du egungo~~ gizartean. Horren ordez, aditu gehienak bat datoz esatean Wikipedian dagoela entziklopedia generoaren etorkizuna, ~~jende arruntak~~, esate baterako zuk edo nik, sortutakoa. Ironikoa bada ere, Jimmy Walesen eta entziklopediaren ~~zalea den~~ belaunaldi berri ausartaren ustez, ezagutza sortu eta banatzeari buruzko ~~manera zahar gaiztoen~~ adierazle bihurtu da Britannica: goitik beherako kontrola, estaldura zerk merezi duen eta zerk ez erabaki eta inori kontuak ematen ez dizkieten zaindariak, egile eskubideen mugak eta bakarrik aberatsentzako prezio garestiak; are, egungo Interneteko formatuan, publikitate hondagarria erakusten ~~du, bere~~ edukiaren fidagarritasuna eta balagarritasuna auzitan jartzen duena.

Zer saihestu

Ez sortu saiakera estiloko artikulua edo atalak.

Ez egituratu zure idazteko era arrazoibide baten gisa.

Ez erabili "hitz lausorik" (adibidez, "aditu gehienak bat datoz" edo "pertsonek batzuek diote").

Ez erabili mesedez kaleko hizkera edo euskalkia.

Ez erabili "baloraziorako hitzak", adibidez, "bikaina", "paregabe", "polit", edo "onena".

Ez sartu zure iritzia idazteko orduan.

Ez erabili hizkera eta esaldi egitura korapilatsurik.

Egokia

Britannica eta entziklopedien etorkizuna

1990eko urteen hasieratik, Britannicak informazio iturri digitalen erronka berriari aurre egin behar izan dio. Bizkor aldatzen diren arloetan, adibidez, zientzia, teknologia, kultura eta historia modernoan, Britannicak lanak izan ditu eguneratuta egoteko, lehenengoz Walter Yust editore izandakoak sistematikoki aztertutako arazoa. [1] Egun, Britannica multimedia formatuan zein Internetez eskura daitekeen arren, Interneteko beste entziklopedia batzuk, adibidez, Wikipedia, kolokatzen jartzen ari dira haren nagusitasuna.[2]

Egin

- Erabili hizkera argia
- Izan laburra
- Aipatu iturriak adierazitako datuak babesteko
- Egotzi ikuspuntuak horiek adierazi dituzten pertsonen
- Ez atera ondorioak, salbu eta ondorioa iturri bati egotzen zaionean

Ikusizko Editorearen bidez editatu

Ikusizko Editorearen bidez, zure aldaketak egin ahala ikusiko duzu nolakoak izango diren eta, era horretan, zure arreta osoa edukiak izango du. Aldatu nahi dituzun zatietan klikatu besterik ez duzu, eta hasi editatzen!

Edizioko tresna barra. Aldatu moduan, tresna-barrak balio dizu formatua eman eta erreferentziak, irudiak zein orriko txantilo deitutako elementu bereziak gehitzeko, hala nola artikulua hasiera askotako infotaulak. Aldaketak egiten amaitu duzunean, sakatu "Aldaketak argitaratu" botoia.

Sarrera atala. Lehendabiziko esaldiak gaiaren definizioa ematen du, eta sarrerako atalak artikuluan azaldutako ezin besteko puntuak laburbiltzen ditu. Hau da izenbururik ez duen atal bakarra.


Irudiak. Lizentzia askeko irudiak eta beste irudi fitxategi batzuk Wikimedia Commonsetik gehitu daitezke Wikipediako artikuluetara.

Aipamenak. Artikuluko gorputzeko esaldi buruko aipamenak testuko zati bakoitzeko informazioa nondik etorri zen erakusteko da. Aipamenaren detaileak oinohar gisa amaieran agertzen dira.

Txantiloak. Txantilo deitutako piezak erabiltzen dira informazioari formatu estandarra emateko eta gauzak (adibidez, artikulua batean arazoak daudela irakurleei ohartarazten dieten etiketak) txertatzeko, eta berrerrabil daitezke.

Artikuluaren gorputza. Izenburuek (eta batzuetan azpi-izenburuek) ataletan antolatzen dute artikulua, eta edukien taula bat sortzen dute. Atalek gehienetan gaiaren alde adierazgarri bat jorratzen du; irakurleek, era horretan, bilatzen duten informazioa jauzi egin dezakete zuzenean.

Atal gehigarriak eta oinoharrak. Artikulu bateko gorputz nagusiaren ondoren, informazio gehigarria duten atalak datoz, hala nola loturaren bat duten Wikipediako artikulua ("Ikus, gainera"), erabilitako aipamenen detaileak biltzen dituen atala ("Erreferentziak"), Bibliografia / Iturriak, edota informazio gehiago aurkitzeko irakurleek balia ditzaketen beste webgunere batzuk ("Kanpo loturak").



Wikimarkaera erabiliz editatu

Wikimarkaera Wikipediako artikulua editatzeko jatorrizko modua da (arakatzaile batzuetan hori beste modurik ez da egongo). Kontrol zehatza emango dizu orriaren eduki eta itxuraren gainean, behin nola funtzionatzen duen ulertzen duzunean. Behean dituzu irudikatuta artikulua baten azpian dauden wiki marka batzuk. Konparatu Ikusizko Editorean haiekin pareka daitezkeen zenbat elementu ikus ditzakezun.

```
A [[File:Brokhaus Lexikon.jpg|thumb|Brokhaus Enzyklopädie]]
B An '''encyclopedia''' (also spelled '''encyclopaedia''' or
'''encyclopaedia''') is a type of [[reference work]] - a [[compendium]]
holding a summary of [[information]] from either all branches of
[[knowledge]] or a particular branch of knowledge.<ref>Encyclopedia" in
Glossary of Library Terms. Riverside City College, Digital Library/
Learning Resource Center. Accessed 2007-11-17.</ref> Encyclopedias are
divided into [[article (publishing)|article]]s or entries, which are

E Encyclopedias have existed for around 2,000 years: the oldest still in
existence, '''[[Naturalis Historia]]''', was written ca. AD 77 by [[Pliny
the Elder]]. The modern encyclopedia evolved out of dictionaries around
the 17th century. Historically, some encyclopedias were contained in one
[[volume]], but some, such as the '''[[Encyclopædia Britannica]]''' or the
world's largest '''[[Enciclopedia universal ilustrada europeo-
americana]]''', became huge multi-volume works. Some modern encyclopedias,
such as [[Wikipedia]], are electronic and are often freely available.

F ==Characteristics==

The modern encyclopedia was developed from the [[dictionary]] in the 18th
century. Historically, both encyclopedias and dictionaries have been
researched and written by well-educated, well-informed content
[[experts]], but they are significantly different in structure. A
dictionary is a linguistic work which primarily focuses on alphabetical
listing

Four major elements define an encyclopedia: its subject matter, its scope,
its method of organization, and its method of production:
* Encyclopedias can be general, containing articles on topics in every
field (the English-language "Encyclopedia Britannica" and German
'''[[Brokhaus Enzyklopädie|Brokhaus]]''' are well-known examples). General
encyclopedias often contain guides on how to do a variety of things, as
well as embedded dictionaries and [[gazetteer]]s. {{citation needed}}

G

==Notes==
H <references />

==External links==
* [http://www.hti.umich.edu/cgi/t/text/text-idx?
c=did;cc=did;idno=did222.0000.004;rgn=main;view=text Encyclopedia] -
Diderot's article on the Encyclopedia from the original [[Encyclopédie]].
* [http://digicoll.library.wisc.edu/HistSciTech/subcollections/
CyclopaediaAbout.shtml Chambers' "Cyclopaedia"], 1728, with the 1753
supplement
I * [http://www.1911encyclopedia.org/ 'Encyclopædia Britannica'], 11th
ed., 1911, at the Lovetoknow site.
J [[Category:Encyclopedias]]
[[Category:Reference works]]
```

Wikimarkaerari buruzko laguntza eskatzeko, ikus 19. orrialde-ko laburpen zerrenda, edo bisitatu | WP:TU laster hitza

A Irudia. Wikimedia Commonseko argazki baten izenburua- ren mutur banatan jarritako kako bikoitzek irudia txertatuko dute. Barra bertikalek bereizi egiten dituzte aukerazko parametroak, irudia nola erakutsiko den kontrolatzen dutenak. Gehienetan bi parametro baliatzen dira: "thumb" hitza, miniatura formatu estandarra erabiltzeko, eta irudiaren oinako azalpena. `[[Fitxategi:Example.jpg|thumb|irudi oina]]`

B Lodia. Testu segida baten alde banatan jarritako hiru apostrofok testua lodi egiten dute. Artikuluaren gaia lehenbiziko esaldian loditu ohi da. `>'''testu lodia'''`

C Aipamena. Ireki eta ixteko erreferentzia etiketak iturri bat aipatzeko erabiltzen dira. Automatikoki sortutako zenbaki bat goi-indize gisa agertuko da etiketa horien tokian; edukia, berriz, erreferentzien ataleko oin-oharretan agertuko da. `<ref> aipatutako testua </ref>`

D Barne lotura. Hitz baten inguruko kako bikoitzak esteka (lotura) bat sortzen du izen horren artikulura. Marratxo bertikala eta itxierako kakoek mugatutako beste testu segida bat gehituz, estekako testua aldatzen da. `[[artikuluaren izenburua|testua]]`

E Etzana. Testu pasarte baten alde banatan jarritako bi apostrofok testua etzana egiten dute. `''testu etzana''`

F Atalburua. Bi berdintza ikurrek lerro bat atalburu bihurtzen dute; hiru berdintza ikurrek azpialburu bat. `==Atalburua==`

G Txantiloia. Giltza bikoitzak txantiloietarako erabiltzen dira, eta txantiloak gauza askotarako berrerabil daitezkeen orri elementuak dira. Irekitzeko giltzen ondorengo lehenbiziko elementua txantiloaren izena da. Parametroak dira txantilo batek funtzionatzeko edo bistaratzeko duen modua alda dezaketen aldagaiak, eta barra bertikalek bereizten dituzte. `{{txantiloaren izena |parametroa}}`

H Erreferentziak. Erreferentzien etiketak (edo txantilo baliokide batek) oin-oharrak agertzen diren kokapen bat ezartzen du, "Oharrak" edo "Erreferentziak" ataletan gehienez. `{{erreferentzia_zerrenda}}`

I Kanpoko loturak. Hiperesteka normal bat sortzeko, behar da irekitzeko kako zuzen bat hasieran, URLa gero, tarte bat, etiketa testua, eta ixteko kako zuzen bat. Gehienetan oin-oharretan edo "Kanpoko loturak" atalean erabiltzen dira. `[http://www.example.com testua]`

J Kategoria. Artikuluaren amaieran, irekitzeko kako zuzen bikoitzez hasi, gero "Kategoria:" idatzi, eta era horretan artikulua hori kategoria jakin batean sartuko da; bukatzeko, gehitu ixteko kako bikoitza. Kategoriek elkarrekin erlazioa duten multzoetan biltzen dituzte Wikipediako artikulua. `[[Kategoria:Zerbait]]`

Edukia gehitu, pausoz pauso

Irudi hauek erakusten dute lankide batek informazio berria nola gehitu duen “Norteko geltokia (Donostia)” artikuluko “Historia” atalera.

Artikuluak aldatu aurretik...

Historia [aldatu aldatu iturburu kodea]	Zerbitzuak
<p>Espainiako burdinbidearen negozioa bereganatzeko lehia 1855an ireki zen, Burdinbideen Legea onartu eta berehala. Orduan, Frantzia eta Madrilen oinarritutako MZA eta Norteko Konpainia handiek, Espainiako espekulatzailerik txikien laguntzaz, erdigunea Madril zuen sarea eskuratzeko lasterketa hasi zuten. Linea nagusietako bat Madril-Irun ardatza zen, Norteko burdinbidea. Azken tartea izan zen zailena eraikitzeko eta 1864an osatu zen Irunera heldu eta han Bordele-Irunekin bat egin ondoren. 1864ko udan, inaugurazio oturuntza bat egin zuten Donostian, erreginaren presentzia, eta Donostiako Iparraldeko geltokia ireki zen.</p> <p>Hartara, Frantzia zein Italiarekiko konexio zuzena ekarri zuen. Hasiera batean geltokia behin-behinekoa zen, hiriko zabalgunea mugatzen zuen Urumea ibaiaren beste ertzean eraiki zen, isolatua. Beranduago (1905), ordea, zubi bat kokatu zen geltokiaren sarrera monumentalarekin alineaturik; Maria Cristinaren zubia. Geltoki hau Gustave Eiffel ingeniariak (Eiffel dorrearen sortzailea) Espainian utzitako obra bakarra da.</p> <p>Geltoki honetaz baliatuz erbesteratu zen Elisabet II.a Espainiakoa, eta Hendaiaara joan zen Francisco Franco bere kide germaniarra zen Adolf Hitlerrekin elkartzeko.</p>	Aldageltokia Nasa kopurua 3 Trenbide kopurua 6 Jabea ADIF Eragilea(k) Renfe Operadora
	Garraio zerbitzuak
	Abiadura handia Alvia
	Distantzia luzea Intercity, Trenhotel
	Distantzia ertaina MD 25 Irun - Miranda Ebro
	Renfe Aldiriak C-1 Irun - Brinkola
	d-bus 17 Gros - Amara - Miramon 24 Altza - Gros - Antiguoa

...eta artikulua aldatetak argitaratu ondoren.

Historia [aldatu aldatu iturburu kodea]	Zerbitzuak
<p>Espainiako burdinbidearen negozioa bereganatzeko lehia 1855an ireki zen, Burdinbideen Legea onartu eta berehala. Orduan, Frantzia eta Madril oinarritutako MZA eta Norteko Konpainia handiek, Espainiako espekulatzailerik txikien laguntzaz, lasterketa bat hasi zuten erdigunetzat Madril zuen sarea eskuratzeko. Linea nagusietako bat Madril-Irun ardatza zen, Norteko burdinbidea. Azken tartea izan zen zailena eraikitzeko eta 1864an osatu zen Irunera heldu eta han Bordele-Irunekin bat egin ondoren. 1864ko udan, inaugurazio oturuntza bat egin zuten Donostian, erreginaren presentzia, eta Donostiako Norteko geltokia ireki zen.^[5]</p> <p>Hartara, Frantzia zein Italiarekiko konexio zuzena ekarri zuen. Hasiera batean, geltokia behin-behinekoa zen; hiriko zabalgunea mugatzen zuen Urumea ibaiaren beste ertzean eraiki zen, bakartuta. Beranduago (1905), ordea, zubi bat kokatu zen geltokiaren sarrera monumentalarekin lerrotatuta: Maria Cristinaren zubia. Geltokiaren aldamenean, gerora Atotxako dorrea eraikiko zuten orubean, Herederos de Ramón Mújica enpresa finkatu zen XIX. mende amaieran eta, geltokia aldamenean zenez, tren fabrikazioan hasi zen, zureko bagoiak eginez batez ere.^[6]</p> <p>Geltoki honen markesina Gustave Eiffel ingeniariak (Eiffel dorrearen sortzailea) Espainian utzitako obra bakarra da. Geltoki honetaz baliatuz erbesteratu zen Elisabet II.a Espainiakoa, eta Hendaiaara joan zen Francisco Franco bere kide germaniarra zen Adolf Hitlerrekin elkartzeko.</p>	Aldageltokia Nasa kopurua 3 Trenbide kopurua 6 Jabea ADIF Eragilea(k) Renfe Operadora
	Garraio zerbitzuak
	Abiadura handia Alvia
	Distantzia luzea Intercity, Trenhotel
	Distantzia ertaina MD 25 Irun - Miranda Ebro
	Renfe Aldiriak C-1 Irun - Brinkola
	d-bus 17 Gros - Amara - Miramon 24 Altza - Gros - Antiguoa - Inbaurrondo 37 Rodil - Zorroaga
	Bestelakoak Taxi

Irudi honek erakusten du lankideak zer gehitu duen, eta zein wiki marka erabili dituen. Jarraitu pauso horiek eta zeuk ere edukia gehitu ahal izango duzu Wikipediako artikulua batera.

1. pausoa: aukeratu idatzi nahi duzun gai bat.

2. pausoa: aurkitu gaia uneko Wikipediako artikulua baino hobeto landu duen iturri fidagarri bat.

3. pausoa: orain bai, ondo pasa. Klikatu **Aldatu** botoian! **A**

4 pausoa: gehitu falta dena. Aurkitu duzun iturria erabiliz, laburbildu zure hitzetan gehitu nahi duzun informazioa. **B**

5. pausoa: gehitutako testu pasarte berriaren amaieran, jarri erreferentzia bat. Aldaketen tresna barran, wikimarkaera edo Ikusizko Editorea erabiltzen ari zarela, **“Aipatu”** ikonoa klikatu dezakezu zure iturria aipatzeko. **C**

6. pausoa: **“Laburpena”** eremuan, mesedez jarri egin duzun aldaketaren azalpen labur bat. **D** (Ikusizko Editorean, **“Aldaketak argitaratu”** klikatu ondoren leiho bat agertuko zaizu laburpen bat eskatuz. Aldaketen Laburpenak lagundu egiten die beste editoreei egiten ari zarena ulertzen.

7. pausoa: orain, heldu da zure aldaketak gordetzeko garaia. Klikatu **Aldaketak argitaratu**. **E**

Norteko geltokia (Donostia) aldatzen (atala)



== Historia ==

B [[Espaniako historia|Espania]]<nowiki/>ko burdinbidearen negozioa bereganatzeko lehia 1855an ireki zen, Burdinbideen Legea onartu eta berehala. Orduan, Frantzia eta Madrilen oinarritutako [[Madriletik Zaragoza eta Alacanterako Burdinbide Konpainia|MZA]] eta [[Norteko Konpainia]] handiek, Espainiako espekulatzailer txikien laguntzaz, lasterketa bat hasi zuten erdigunetzat Madril zeukan sarea eskuratzeko. Linea nagusietako bat Madril-Irun ardatza zen, [[Norteko burdinbidea]]. Azken tarteak izan zen zailena eraikitzeko eta 1864an osatu zen Irunera heldu eta han [[Bordele-Irun trenbidea|Bordele-Irun]] <nowiki/>ekin bat egin ondoren. 1864ko udan, inaugurazio oturuntza bat egin zuten Donostian, erreginaren presentziaz, eta Donostiako Norteko geltokia ireki zen.<ref>Olaizola, Juanjo. Lopez, Jose (argazkiak) (1995), 18-19. or.</ref>

Hartara, [[Frantzia]] zein [[Italia]]rekiko konexio zuzena ekarri zuen. Hasiara batean, geltokia behin-behinekoa zen; hiriko zabalgunea mugatzen zuen [[Urumea|Urumea ibaia]]ren beste ertzean eraiki zen, bakartuta. Beranduago (1905), ordea, zubi bat kokatu zen geltokiaren sarrera monumentalarekin lerrokatuta: Maria Cristinaren zubia. Geltokiaren aldamean, gerora Atotxako dorrea eraikiko zuten orubean, [[Herederos de Ramón Mújica]] enpresa finkatu zen XIX. mende amaieran eta, geltokia aldamean zuzenez, tren fabrikazioan hasi zen, zuzeko bagoiak eginez batez ere.<ref>Olaizola, Juanjo. Lopez, Jose (argazkiak) (1995), 56-57. or.</ref>

Geltoki honen markesina [[Gustave Eiffel]] ingeniariak ([[Eiffel dorrea]]ren sortzailea) Espainian utzitako obra bakarra da. Geltoki honetaz baliatuz erbesteratutako [[Elisabet II.a Espainiakoa]], eta [[Hendaia]]ra joan zen [[Francisco Franco]] bere kide germaniarra zen [[Adolf Hitler]] rrekin elkartzeko.

Laburpena (Egindako aldaketak laburki azaldu)

D /* Historia */ Erreferentziak, zuzenketak, info 208

Aldaketa txikia Egin jarraipena

«Gorde orria» botoian klikatuz, Erabilera-baldintzak onartzen dituzu, eta zure ekarpena CC-BY-SA Aitortu-Partekatu Berdin 3.0 eta GFDL lizentzietan lagatzen duzu modu ezeztazinean.

Onartzen duzu hiperlotura edo URL bat aski dela egiletza aitortzeko.

E **Aldaketak argitaratu**

Erakutsi aurreikuspena

Erakutsi aldaketak

Utzi

Aldatzeko laguntza (leiho berria irekitzen da)

Lasai horregatik. Akats bat egiten baduzu, aldaketa gehiago ere egin ditzakezu, edo egindako aldaketak desegin.

Erabiltzaile orriak eta Eztabaida orriak

Wikipediak baditu beste orri mota batzuk artikuluez gain. Editatzen has-ten zarenean, onena zure **Erabiltzaile orria** sortzea duzu, bertan zure buruaren berri zertxobait emateko.




Goiko eskuinaldean (saioa hasi baduzu), zure erabiltzaile izena ikusiko duzu, eta bertan klika dezakezu zure Erabiltzaile izenera joateko. Artean existitzen ez diren orrien esteka edo loturak (adibidez, zure Erabiltzaile orria, sortu ez baduzu) gorriz agertuko dira, urdin ezagunaren ordez.

Orri hauetako baten **Sortu** botoian klikatzen baduzu, orri zuri batetik hasiko zara. Erabiltzaile orria zure buruaren berri zertxobait emateko tokia da, beste lankideei zu nor zaren eta zer interes dituzun gainetik azaltzeko. Asko edo gutxi esan dezakezu, nahi duzuna.

Aldaketak argitaratu klikatzean, zure esteka gorria urdin bihurtuko da!

Baduzu ere **Eztabaida orri bat**, eta bertan beste lankideek mezuak utz diezazkizute. Beste lankide batekin harremanetan jarri nahi baduzu, nahikoa duzu haren Eztabaida orrira nabigatu eta beheko aldean mezu bat uztea.

Eztabaida orrietako zure mezuek sinatu behar dute; aldaketen tresna barran Sinadura ikonoan klikatuz, lau tileta gehituko dituzu (~ ~ ~ ~). Hartara, zure lankide izena agertuko da zure mezuaren data eta orduarekin batera.

 **Aldaketen tresna barrako ikono hau Sinadura botoia dabatera.**

Komunitatearekin elkarrekintzan

Artikulu guztiek **Eztabaida orri** bana dute. Eztabaida orri horiek iradokizunak egiteko erabil daitezke, iturri berriak gehitzeko, arazoak daudela adierazteko eta, lankideak bat ez badatoz, aldaketez eztabaidatzeko.



The screenshot shows the Wikipedia page for 'Eztabaida: Euskarazko Wikipedia'. The page has a navigation bar at the top with links for 'Artikulu', 'Eztabaida', 'Irakurri', 'Aldatu iturburu kodea', 'Gehitu atala', 'Ikusi historia', and a search box. The main content area includes a section for 'Sorrera data' with a list of recent changes and a section for 'Taula bat gehitu dut' with a list of recent additions. The left sidebar contains various navigation links like 'Azala', 'Komunitatea', 'Albisteak', etc.



The screenshot shows the talk page for 'Encyclopedia'. It features a header with the user's name 'Ephraim Chambers' and a list of actions like 'Read', 'Edit', 'New section', and 'View history'. The main content area includes a notice about the article being selected as 'Today's article for improvement' and a list of guidelines for discussing improvements to the article. The bottom of the page shows a list of related Wikipedia projects like 'WikiProject Education' and 'WikiProject Literature'.

Komunitate eztabaidetarako jarraibide garrantzitsu bat da errespetuz eta gizalegez jokatzea. Desadostasunak badituzu ere, beste lankidearen fede ona onartu beharko zenuke. Ia beti zuk duzun helburu bera izango du: Wikipedia hobea egitea. Eztabaidetan erreparatu mesedez edukiari bakarrik, eta ez beste lankideari.




Hara, jakinarazpen berri bat! Horiek norbaitek aipatu zaituela esaten dizute, edo norbaitek eskertu egin dizula, edo zure Eztabaida orrian mezu bat utzi duela.

Mugikorretik editatu

Ohiko mahaigaineko interfazea ez ezik, Wikipediak mugikorretarako bertsio erraztu bat du irakurri eta editatzeko. Nahikoa duzu Wikipedia zure smartphonean edo tabletan bisitatzea, eta saioa hastea.

Erakutsi eta ezkutatu menu aukerak



Artikuluetan editatu

Argazkiak igo eta gehitu

Artikuluak zure jarraipen zerrendara gehitu

Zure Jakinarazpenak egjatzatu

Search Wikipedia

Penny Cyclopaedia

The Penny Cyclopædia of the Society for the Diffusion of Useful Knowledge was a multi-volume encyclopedia edited by George Long and published by Charles Knight alongside the *Penny Magazine*. Twenty-seven volumes and three supplements were published from 1833 to 1843.

The unnamed contributors to the *Penny Cyclopædia* included many notable figures of the period, including Henry Ellis, John

Zergatik editatu Wikipedian?



Gogoko dut jakitea ni baino handiagoa den zerbaiti laguntzen ari natzaiola.



Alde batean, baduzu konpainia aberats eta indartsuen talde bat. Internet kontsumorako bitarteko bat bihurtu nahi dute: telebista interaktiboa supermerkatuari uztartuta. Bestetik, baduzu Internetek mundua alda dezakeela uste dut talde bat.



Denok irakurtzen dugu Wikipedia. Norbaitek zerbait jakin nahi badu, Wikipediara doa lehendabizi. Badakit apurtxo bat lagundu dudala, beharbada asko ere bai. Eta hori da ezagutzen dudana sentimendu ederrena.

Gehiago Euskal Wikipediaz

Wikipediako hizkuntza bertsio bakoitza desberdina da (nahiz eta hizkuntzen artean gauza berdin asko eduki ere). Hemen erabilgarri izango zaizkizun Euskal Wikipediako hainbat gauza berezi aurkituko dituzu.

Zure lehendabiziko artikulua sortu

Euskal Wikipedian artikulua bat hastea—eta ezabatua ez dela segurtatzea—bihurria izan daiteke. Zure lehendabiziko artikulua sortzeko gida xehe baterako, joan EU WPko esteka honetara: | [Laguntza:Sarrera berriak](#).

Irudi ez-askeak igo

Oro har, Wikipediako artikuluetan irudi elementuak gehitzeko lizentzia askeko edo jabari publikoko irudiak erabil daitezke bakarrik, eta horiek Wikimedia Commonsera igo behar dira (commons.wikimedia.org). Ingeleseko Wikipediak badu salbuespen bat material ez-askeetarako, en:WP:NONFREE lasterbidean ingelesez irakur dezakezunez. Wikipediara arauen araberako justifikazio argi batez ez igotako irudi ez-askeak ezabatuak izango dira.

WikiProiektuak

WikiProiektuak Wikipedian editatzeko orduan elkarrekin interes bat duten lankideen taldeak dira. Uneko WikiProiektuetan arakatu (ikus Wikipedia:WikiProiektu) eta horietako batean hastea modu ona izan daiteke zer gauzatan aritu nahi duzun aurkitzeko eta beste wikilari batzuekin konektatzeko.

Wikipediako artikuluen baloratu

Euskal Wikipediak badu artikuluen kalitatea zehazteko sistema. Baditugu “Zirriborroak” diren artikuluen, bestetik badira sailkatu gabeak, “Artikulu onak” ere baditugu, eta azkenik artikuluen eredugarriak ditugu: Artikulu nabarmenduak.

Artikulu bakoitzak eskuratutako balorazioa goialdeko marraren eskuinean ikus dezakezu edo, zirriborroa bada, artikuluko behealdean dagoen kutxa batean. “Wikipedia:Kalitateko edukia” orrian, Artikulu Nabarmenduak eta On guztiak agertzen dira. “Kategoria:Zirriborroak” arakatzea modu ederra izan daiteke lantzeke dauden gai berriak aurkitzeko.

Wikipedia artikulua- ren kalitatea ebaluatu

Wikipediako artikuluen kalitatean alde handiak daude: batzuk oso onak dira, baina beste hainbat ez dira sakonak edo argiak, joera bat dute, edo are, zaharkituta daude. Oro har, kalitate handiko artikuluek elementu hauek dituzte:

- Erraz ulertzen den sarrera atal orokor bat
- Egitura argi bat
- Estaldura orekatsua
- Eduki neutrala
- Iturri fidagarriak

Artikuluen kalitateari buruzko informazio gehigarria aurkituko duzu “Wikipedia ebaluatu” liburuxkan begiratuz (ikus behean).


Additional resources



Wikipedia ebaluatu: artikuluen bilakaeraren jarraipena egin eta haren kalitatea ebaluatu

Artikuluak nola garatzen diren, kalitate oneko artikuluetako elementuak eta kalitate eskaseko artikuluen zantzuak, horiek guztiak aztertuko ditugu gida honetan.


<http://education.wikimedia.org/evaluating>



Wikipedian marraztu: Wikimedia Commonsera edukia gehitzeko gida

Wikimedia Commonsi buruzko gida lagungarria. Commons Wikipedian erabiltzen den multimedia materialen biltegia da. Liburuxka honek Wikimedia Commons zer den zehazten du, fitxategiak nola igo, horiek nola baliatu, eta lizentzia askei buruzko oinarri-zko guztia.

<http://education.wikimedia.org/illustrating>







Irakaslearentzako oinarriak: nola erabili Wikipedia irakasteko bitarteko gisa

Liburuxka honek jardunbide onenak eskaintzen dizkie ikastaroko curriculumean kokatuta ikasleei Wikipediako lanak esleitzen dizkieten irakasleei.

<http://education.wikimedia.org/instructorbasics>

Wikimarken taula laburra

Ondorengo adibideek erakusten dute Wikipediako artikuluetan aldaketak egitean gehienetan behar izaten den formaturako wikimarkaera. Gehiago jakiteko, joan hona: | WP:LAG TU lasterbidea.

Deskribapena	Zer teklatzen duzun	Zer ikusiko duzun
Letra etzana	<code>``Letra etzana``</code>	<i>letra etzana</i>
Letra lodia	<code>``Letra lodia``</code>	letra lodia
Atalburuak	<code>==Atalburu testua==</code> <code>===Atalburu testua===</code> <code>====Atalburu testua====</code>	Atalburu testua Atalburu testua Atalburu testua
Beste Wikipedia orri batera estekatu (barne loturak)	<code>[[Denis Diderot]]</code>	Denis Diderot
Testu desberdina duen barne lotura	<code>[[Denis Diderot Diderot]]</code>	Diderot
Beste webgune batera estekatu (lotu)	<code>[http://www.euskaltzaindia.eus/index.php?lang=eu Euskaltzaindiaren hasierako web orria]</code>	Euskaltzaindiaren hasierako web orria 
Bulet zerrenda	<ul style="list-style-type: none">* Wikipedia* Euskaltzaindia	<ul style="list-style-type: none">• Wikipedia• Euskaltzaindia
Zenbaki zerrenda	<ul style="list-style-type: none"># A - Lexikoa# B - Morfologia	<ol style="list-style-type: none">1. A - Lexikoa2. B - Morfologia
Azpitulua duen irudia	<code>[[File:Example.jpg thumb Irudi oineko (aukerako) testua]]</code>	 <p>Irudi oineko (aukerako) testua </p>
Sinadura eta denbora zigitua (Eztabaida orrietarako)	<code>~~~~</code>	Lankide izena (eztabaida) 15:12, 13 abendua 2017 (UTC)
Aipamenak egiteko	Zer teklatzen duzun	Zer ikusiko duzun
Aipamen bat txertatu	<code>Orriko testua.<ref>[http://wikimedia.eus/ Wikimedia.eus], testu gehiago.</ref></code>	Orriko testua. ^[1]
Erreferentzia atalean bistaratu	<code><references /></code>	1. [^] Wikimedia.eus ,  testu gehiago.

Laburpena

Wikipedia orrian egindako aldaketen azalpen laburra da; era horretan beste lankideek artikulua-ren bilakaera jarraitu ahal izango dute, eta aldaketaren asmoa ulertu.

Lizentzia askea Jabari publikoko lizentzia bat da, edozein pertsonari edozein helburutarako lan bat erabili eta aztertze, haren kopiak egin eta berriz banatzeko, aldaketak eta hobekuntzak egiteko eta lan eratorriak banatzeko askatasuna ematen diona. Wikipedia, eta hari egindako ekarpen bakoitzak Creative Commons Aitortu — Berdin Partekatu lizentzia erabiltzen du, lizentzia aske bat. Ikus Wikipediako ohiko lizentzia hemen: <https://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>.

Historia Wikipedia orri baten erregistroa da, Historia ikusi fitxaren bidez bistaratu eta egindako aldaketa guztiak erakusten dituena. Bi bertsio konpara daitezke bien arteko aldeak (oro har Wikipedian diff deituak) zehazki ikusteko, eta aurreko bertsioak berrezarri.

Markaera Wikipedia orri bati formatua emateko kode berezia da. Ikus wikimarken taula (19. or.) oinarritzko gauzetarako, edo joan EU WPko esteka honetara: WP:LAG TU lasterbidea.

Jakinarazpena Wikipedia orriko goiko menu barran agertzen den mezu ohar bat da. Erantzun diozuela norbait jakinarazi nahi badiozu, aipatua izatearen jakinarazpen bat sor dezakezu, Eztabaida orriko mezu sinatu batean haren Lankide orriara esteka bat sortuz.

Parametroa Irudiak, txantiloiak eta beste wiki-markak orri batean nola agertzen diren kontrolatzeko testu zati bat da, beste zati batzuetatik barra bertikal batez (|) bananduta.

Zirriborroa Artikulu labur bat da, artean luze eta zabal lantzeko espazioa duena. Zirriborroetara edukia gehitzea gauzak egiten hasteko modu eder bat da.

Eztabaida orria Artikulu edo beste Wikipedia orri baten eztabaidarako gunea da, beste lankide batzuekin orriko edukiei buruz hitz egiteko.

Txantiloiak Orri baten edukiak beste baten barruan automatikoki agertzeko modua da. Nola erabili ezagutzeko, ikus | WP:TXAN lasterbidea.

Lankide orria Lankide baten erabiltzaile orria da. Hasiera “Lankide:” izaten du, lankide izenaz jarraituta. Wikilariek Lankide orriak erabil ditzakete beren buruaren eta interesen berri emateko, zein artikulutan lan egin edo nahi duten zerrendatzeko, eta abarretarako.

Wikimedia Commons Wikipedia eta beste wiki askotarako multimedia materialen biltegia da. Bertara lizentzia askeko argazki, diagrama, bideo eta beste multimedia fitxategi batzuk igo ditzakezu, Wikipedia irudikatze.

Wikilaria Wikipediako proiektuak eraikitzen laguntzen duen norbait. Beste izendapen batzuk ere erabiltzen dira, adibidez, “lankide”, “editore”, edo “wikikomunitateko kide”.



Wikimedia Commons webguneko irudi guztiek CC BY-SA lizentzia dute, edo jabego publikokoak dira, bestela adierazi ezean. Hemengo edukiak Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 3.0 lizentzia du (<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>), edo lizentzia horren gozotiko bertsioaren bat.

Wikimedia Fundazioaren marka erregistratuak eta logoak, eta beste ezein erakunderenak, ez daude sartuta Creative Commons lizentzia horretan. Wikimedia Foundation, Wikipedia, Wikimedia Commons, MediaWiki, Wiktionary, Wikibooks, Wikidata, Wikisource, Wikinews, Wikiquote, Wikiversity, Wikivoyage, Wikispecies eta Meta-Wiki markatzat erregistratzekotan daude edo Wikimedia Fundazioaren marka erregistratuak dira.

Informazio gehiago nahi baduzu, ikus ezazu marka erregistratuei buruzko politikaren gure orria (ingelesez): http://wikimediafoundation.org/wiki/Trademark_Policy.

Lizentzia baldintzei edo marken politikari buruzko beste edozein galdera izanez gero, idatzi helbide honetara: legal@wikimedia.org

Testuaren egileak: Wikimedia Fundazioa eta Wikimedia Commonseko ekarpen-egileak

Itzultzailea: Iñaki Lopez de Luzuriaga

Diseinua: EXBROOK, San Frantzisko. **Puzzly eta irudiak:** Michael Bartalos